



JON TXOPITEA ZUGADI, BARRUNDIAKO UDALEKO IDAZKARIA,

ZIURTATZEN DUT: Barrundiako Udaleko Alkate-Lehendakariak 2020ko irailaren 25ean, **450** Zenbakia duen **Erabakia** hartu zuela, honako hau, hitzez hitz, esaten duena:

“IKUSIRIK: Iparralden, Herri Urrats Elkarteak, duela 50 urte murgiltze sisteman sortutako lehen ikastolak hazi emankorrek bota ditu eta hainbat jendeen lanari esker 37 ikastetxek 4.000 ikasleen hezkuntza ziurtatzen dute.

GERTUA IZANIK: Herri Urrats elkarteak Iparralde osoan euskararen normalkuntza prozesurako urratsak egin ditu eta ahal duen neurrian, Euskal Herria mailan.

GERTUA IZANIK: Herri Urrats Elkarteak euskararen normalizazio-prozesuan, edozein hizkuntzarenean bezalaxe, funtsezko funtzioa betetzen duten herritarrak ahalduntzeko erremintak inplementatu ditu.

GERTUA IZANIK: Barrundiako Udalak eta Herri Urrats Elkarteak 2020ko martxoaren 11n sinatutako hitzarmena.

ZERA ERABAKITZEN DUT

LEHENA.- Barrundiako Udalak Herri Urrats erakundeak aurrez aipatutako lanildoak gauza zitzan egindako ahaleginak suposatzen dituen gastuei aurre egiteko 300,00 eurotako dirulaguntza onartzea (2020ko Aurrekontu Orokorretako 335.481.002 partida).

BIGARRENA.- Aurrenean aipatutako dirulaguntza berehala ordaintzea (ES98 2095 5045 8710 6117 7332).

HIRUGARRENA.- Honako erabaki hau Herri Urrats Elkarteari jakinaraztea.”

Eta hala jasota gera dadin behar diren ondorioetarako honako hau luzatzen dut, onetsi eta zigilitua. Ozaetan 2020ko irailaren 25ean.

